

## HONA HEMEN GURE ESKUBIDEAK

### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Haurren Eskubideei buruzko Adierazpeneko printzipioak ezagutzea eta horien gainean hausnartzea.

### Iraupena

Jarduera hau bi saiotan egiteko dago pentsatuta.

### Beharke dugun materiala

Papera eta margoak.

### Zikloak 1 2

### Garapena

Gaia kokatzen joateko, azalpentxo bat eman:

«Eskubideak pertsonok dauzkagun babesgarri ikusezin batzuk bezalakoak dira. Gure bizitzan, egoera askotan babesten gaituzte. Horregatik, ezagutu egin behar ditugu, eta betearazi. Horrela, babestuta egongo gara beti, eta besteei ere babesten lagunduko diegu».

Esan neska-mutilei Haurren Eskubideei buruzko Adierazpenean jasotako eskubideak zein diren. Horretarako, erantsitako informazioa erabil dezakezue, printzipioak ozen irakurriz eta behar diren azalpenak emanaz, denentzat garbi gera daitezten.

Adibide hauek ere irakur ditzakezue, eta antzekoak diren beste kasu batzuk gehitu:

**Mian:** Ni Mian naiz. Hamabi urte ditut eta Txinan bizi naiz. Erantzuna: Izena izateko eta herrialde batekoa izateko eskubidea.

**Ángela:** Nik gauza interesgarri asko ikasten ditut eskolan. Nire lagunik onenak Carlos du izena. Erantzuna: Ikasteko eskubidea.

**Celia:** Larunbatero saskibaloian aritzen naiz nire lagunekin eta ezin hobeto ibiltzen gara. Erantzuna: Dibertitzeko eta jolasteko eskubidea.

**Fabián:** Atzo sabeleko minez esnatu nintzen eta ezin izan nuen eskolara joan. Sendagileak jarabe bat hartzeko esan zidan eta orain hobeto nago. Erantzuna: Osasuntsu hazteko eskubidea.

**Sira:** Nire lagun Eloisa Ekuadorrekoa da, Hakim Marokokoa, eta ni Senegalekoa naiz. Hirurok elkarrekin ibiltzen gara beti eta gauza asko egiten ditugu elkarrekin. Erantzuna: Edozein koloretakoa izateko eta errespetatua izateko eskubidea.

Printzipio guztiak ondo ulertu dituztenean, haur bakoitzak marrazki bat egin dezala, Haurren Eskubideei buruzko Adierazpeneko printzipioetako bati lotuta. Bukatzen dutenean, azal dezatela zer margotu duten eta zergatik aukeratu duten printzipio hori.

Azkenik, marrazki guztiak ondo ikusten den lekuren batean zintzilikatu, egunero-egunero gogoan izateko.

## Haurren Eskubideei buruzko Adierazpeneko printzipioak (Bakoitzaren azpian datorren esaldia guk geuk sortua da, nolabait laburbiltzeko)

### **1. printzipioa**

Haurrek Adierazpen honetan jasotako eskubide guztiak izango dituzte. Eskubide horiek haur guzti-guztiei aitortuko zaizkie, inolako salbuespenik gabe. Ez da egingo inolako bereizkeriarik edo diskriminaziorik arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste inguruabarren bat dela eta, dela haurrarena berarena, dela bere familiarena.

#### **ESKUBIDEAK IZATEKO ESKUBIDEA.**

### **2. printzipioa**

Haurrek babes berezia jasoko dute, eta aukerak nahiz zerbitzuak izango dituzte legearen nahiz beste baliabideen bidez, fisikoki, mentalki, moralki, espiritualki eta sozialki garatzeko modua izan dezaten, osasunez, normaltasunez, askatasunez eta duintasunez. Xede horrekin legeak onestean, haurren interes gorena izango da beti abiapuntua.

#### **BABESA IZATEKO ESKUBIDEA.**

### **3. printzipioa**

Haurrek, jaiotzen direnetik, izena eta nazionalitatea izateko eskubidea dute.

#### **IZENA IZATEKO ETA HERRIALDE BATEKO IZATEKO ESKUBIDEA.**

### **4. printzipioa**

Haurrek gizarte-segurantzaren onurak jaso behar dituzte. Osasuntsu hazteko eta garatzeko eskubidea dute, eta, helburu horrekin, zainketa bereziak eman beharko zaizkie, bai hurrei eta bai haien amei, baita jaio aurreko eta jaio osteko arreta ere. Haurrek elikagaiak, etxea, aisia eta osasun-zerbitzu egokiak jasotzeko eskubidea dute.

#### **OSASUNTSU HAZTEKO ESKUBIDEA.**

### **5. printzipioa**

Eragozpen fisiko, mental edo sozialen bat daukaten haurrek beren kasu bereziak eskatzen dituen tratamendua, hezkuntza eta zaintzak jasoko dituzte.

#### **BEHAR IZANEZ GERO ZAINKETA BEREZIAK JASOTZEKO ESKUBIDEA.**

### **6. printzipioa**

Haurrek maitasuna behar dute beren nortasuna osotasunean eta harmonian garatzeko. Ahal den guztietan, gurasoen babesaren eta arduraren mende biziko dira, eta, betiere, giro goxo eta seguru batean. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, ezin izango da haur txikirik bere amarengandik banandu. Gizarteak eta agintari publikoek familiarik ez duten edo bizirauteko baliabide egokirik ez duten haurrak zaintzeko betebeharra daukate. Estatuak familia ugarietako subsidioak edo bestelako laguntzak ematea komeni da, seme-alaben gastuak eusten laguntzeko.

#### **MAITE GAITUEN FAMILIA IZATEKO ESKUBIDEA.**

## **7. printzipioa**

Hurrek hezkuntza jasotzeko eskubidea daukate. Hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa izango da, oinarrizko etapetan behintzat. Hurrei kultura orokorra indartzeko moduko hezkuntza emango zaie, aukera-berdintasun baldintzetan, bere gaitasun, sen, erantzukizun moral eta soziala garatzeko eta gizartean baliagarriak izateko.

### **IKASTEKO, DIBERTITZEKO ETA JOLASTEKO ESKUBIDEA.**

## **8. printzipioa**

Inguruabar guztietan, haurrak izango dira babesa eta sorospena jasoko duten lehenengoetakoak.

### **LAGUNTZA LEHENTASUNEZ JASOTZEKO ESKUBIDEA.**

## **9. printzipioa**

Haurrak babestu egin behar dira abandonu, krudeltasun eta esplotazio mota guztien aurrean. Ezin izango dira inolako salerosketaren xede izan. Hurrek debekatuta izango dute gutxieneko adin batetik behera lan egitea. Ez zaie beren osasun edo heziketarako kaltegarria den eginkizun edo lanetan aritzen utziko, ezta beren garapen fisiko, mental edo morala eragotz dezakeen ezertan ere.

### **LIBRE IZATEKO ETA AMETS EGITEKO ESKUBIDEA.**

## **10. printzipioa**

Haurrak babestu egin behar dira arrazarekin, erlijioarekin edo beste edozerekin lotutako diskriminazioa eragin dezaketen inguruabarren aurrean. Haurrak ulerkortasun-, tolerantzia-, adiskidetasun-, senidetasun- eta bake-giroan hezi behar dira, beren indar eta gaitasunak lagun hurkoaren zerbitzura jarri behar dituztela ikusaraziz.

### **EDOZEIN KOLORETAKOA IZATEKO ETA ERRESPETATUAK IZATEKO ESKUBIDEA.**